# Ingurumenaren Aholku Kontseiluaren 52. bilera
## 52ª Reunión del Consejo Asesor de Medio Ambiente

| | |
|---|---|
| **Deialdia egin duena**<br>Convoca | **Donostiako Udala**<br>Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián |
| **Data, tokia eta ordua**<br>Fecha, lugar y hora | **2012ko urriaren 4a**/ 4 de octubre de 2012<br>**Gobernu Batzordearen Sala**/Sala de Comisión de Gobierno<br>**18:30etan** / A las 18:30 horas |
| **Amaiera ordua**<br>Hora de finalización | **21:00etan /** A las 21:00 horas |
| **Harremanetarako pertsona**<br>Persona de contacto | Leire Sarobe (Haizea Ikerketa S.L.) |
| **Telefonoa**<br>Teléfono | 943 392229 |
| **Helbide elektronikoa**<br>Correo electrónico | haizea@haizeaikerketa.com |
| **Gai-zerrrenda**<br>Orden del día | **1. Aurreko bilerako aktaren onarpena (2012ko uztailaren 18ko bilerari dagokiona)**<br>**2. Erantzuteko dauden eskariei erantzuna**<br>**3. Monpaseko pasealekua**<br>**4. Partaidetza inguruko ebaluaketa eta Tokiko Agenda 21en ebaluaketaren inguruko ekarpenak**<br>**5. Ingurumen sailaren diru-laguntzak**<br>**6. Norberak lekarkeena**<br><br>1. Aprobación de acta anterior (correspondiente a la sesión del 18 de julio de 2012)<br>2. Respuesta a las solicitudes pendientes<br>3. Pasarela de Monpás<br>4. Resultados de la evaluación de la participación en el CAMA y recogida de aportaciones sobre la evaluación de la implementación de la Agenda Local 21 en el 2011<br>5. Subvenciones del Área de Medio Ambiente<br>**6.** Ruegos y preguntas |
| **Parte hartu dute**<br>Asistieron | **11 IAKeko kidek jarraian adierazten direnez gain: ingurumen zinegotzia, 2 udal ordezkari tekniko eta idazkaritza teknikoko ordezkari 1.**<br>11 personas integrantes del CAMA, además del concejal delegado de medio ambiente, 2 representantes del cuerpo técnico municipal y 1 persona de la asesoría técnica. |
| **Etorri ez direlako desenkusatu dira**<br>Excusaron su asistencia | **AZTI** (Raul Castro)<br>**AA.VV de Hondarpe y Larratxo** (Elena Arrieta)<br>**INGEBA** (Juan Antonio Saez)<br>**EUREKA ZIENTZIA MUSEOA** (Mikel Goñi)<br>**SEO/Birdlife Donostia**<br>**UGATZA ORNITOLOGIA** (Josema Verdugo) |

**Ingurumenaren Aholku Kontseiluko kideak** /Componentes del Consejo Asesor de Medio Ambiente

- **Ingurumenaren Aholku Kontseiluko lehendakaria**/ Presidente del Consejo Asesor de Medio Ambiente:

  **Axier Jaka** (BILDU. Ingurugiro Zinegotzia / Concejal de Medio Ambiente)

- **Elkarteak, Herritarrak, Etab/** Asociaciones, Ciudadanos/As, Etc:

  **ARANZADI** (Jon Etxezarreta)
  **EAJ-PNV** (Martin Ibabe)
  **EMAUS** (Begoña Cabaleiro)
  **EGUZKI** (Juan Mª Beldarrain)
  **ESKOLAKO AGENDA 21** (Xabier Insausti)
  **FUNDACIÓN CRISTINA ENEA FUNDAZIOA** (Jose Mª Hernandez)
  **HARITZALDE** (Marko Sierra)
  **ITSAS ENARA ORNITOLOGIA ELKARTEA** (Rafa Saiz)
  **PP** (Vicente García)
  **PSE** (Denis Itxaso)
  **UPV/EHU Departamento de Economía Aplicada** (Amaia Lizarralde)

**Udal Teknikariak /** Técnicos municipales

**Iñaki Irurtia** (Ingurumen Saileko Zuzendaria/Director del Departamento de Medio Ambiente)
**Ana Juaristi** (Aldaketa Klimatikoa eta Tokiko Agenda 21eko Zerbitzu burua/ Jefa del Servicio de Cambio Climático y Agenda Local 21)

**Idazkaritza Teknikoa** / Secretaría Técnica

**Haizea Ikerketa S.L.** (Leire Sarobe)

| | |
|---|---|
| **1. Aurreko bilerako aktaren onarpena (2012ko uztailaren 18ko bilerari dagokiona)** | **1. Aprobación de acta anterior (correspondiente a la sesión del 18 de julio de 2012)** |
| Haritzaldeko ordezkariak *"2. Ondarretako hareatzaren dinamika eta horri lotutako arazoak"* puntuan harrien jatorri antropikoari eta hauek erretiratzeko beharrari buruz bileran adierazi zuen iritzia sar dadila eskatzen du. | El representante de Haritzalde solicita incluir en el punto *2. Dinámica del arenal de Ondarreta y problemática asociada* la opinión que defendió en dicha reunión referida al origen antrópico de las piedras y la necesidad de su retirada. |
| Aurreko akta onartzen da | Se aprueba el acta anterior. |
| **2. Erantzuteko dauden eskariei erantzuna** | **2. Respuesta a las solicitudes pendientes** |
| Axier Jaka, Iñaki Irurtia eta Ana Juaristik zintzilik dauden hainbat eskaerei erantzuten diete: | Axier Jaka, Iñaki Irurtia y Ana Juaristi responden a una serie de solicitudes pendientes: |
| Inausketa eta zuhaitz mozketen ordenantza: IAKera ekarriko da zirriborro fasean ekarpenak jasotzeko. | Ordenanza de podas y talas: se traerá al CAMA en su fase de borrador para recibir aportaciones. |
| Urumean ibai ekosistemari buruzko azalpen txartelak: jarduera hau 2013ko aurrekontuetan barneratuko da. | Carteles explicativos en el Urumea sobre el ecosistema fluvial: la actuación se incluirá en los presupuestos de 2013. |
| LZParen jendaurreko garaiako Udaletxearen alegazioak, Kosta Zerbitzuaren Monpaseko pasabideari buruzko proiektua, Ondarretan agertzen diren harriei buruzko Kosta Zerbitzuaren 2011ko txostena, Planeamenduaren Aholku Kontseiluaren azken bilerako dokumentazioa euskaraz: IAKeko partaideei email bat bidaliko zaie txosten horien zerrendarekin, interesa dutenei ondoren txostenak helarazteko. | Alegaciones del Ayuntamiento durante el período de exposición pública del PTP, Proyecto del Servicio de Costas sobre la pasarela de Monpás, informe de Costas de 2011 sobre presencia de piedras en Ondarreta, documentación en euskara de la última reunión del Consejo Asesor de Planeamiento: se enviará un email con la relación de documentos a los integrantes del CAMA para que se les remita dichos documentos si tienen interés. |
| Harearen gora-beheren bistaratzeko sistema: Kosta Zerbitzua eta Aztirekin elkarlanean burutzen ari den jarraipenari buruzko informazioa eskaini da. | Sistema para visualización de las oscilaciones de la arena: se ha dado información sobre el seguimiento que se realiza en colaboración con Costas y Azti. |
| Agitiko kalaren leheneratzea: eman diren baimenen eta aplikagarria den arautegiaren berrikuspena egiten ari da udaletxea, gaiaren enfokea erabaki aurretik. | Rehabilitación de la cala de Agiti: el ayuntamiento está realizando una revisión de las autorizaciones existentes y la normativa aplicable para determinar el enfoque al tema. |
| Gai zerrendan Planeamenduaren Aholku Kontseiluan eztabaidatu zen "Donostiako Hiria antolatzeko Plan Orokorraren behin betiko onarpena Urumea ibarrean etenda izateari uztea" gaia sartzea: beste bilera batean eztabaidatuko da. | Inclusión en el orden del día del tema "levantamiento parcial de la suspensión de la aprobación definitiva del Plan General de Donostia en lo referente a la vega del Urumea", tratado en el Consejo Asesor de Planeamiento: se tratará en otra reunión. |
| Gai zerrendan hondakinen gaia sartzea: hurrengo bileran udaletxearen hondakinen politika aurkeztuko da. | Inclusión en el orden del día del tema residuos: en la siguiente reunión se presentará la política de residuos del ayuntamiento. |
| Liztor belutinoari buruzko herritarrei zuzenduriko informazioa: triptiko bat egiten ari dira, webean zintzilikatuko dena eta IAKeko partaideei esteka bidaliko zaie ondoren. | Información sobre la avispa velutina para la ciudadanía: se está elaborando un tríptico, que será colgado en la web y se enviará el enlace a los integrantes del CAMA. |
| Gai honi buruz egin diren esku hartzeei buruz galdetu denean, Iñaki Irurtiak jakinarazten du abuztua bitarte 100 dei jaso direla eta 58 irteera egin direla. Aurreikuspena da udazkenaren etorrerarekin kopuru hauek handitu egingo direla. | Ante la pregunta sobre el número de intervenciones en relación a este tema, Iñaki Irurtia informa que hasta agosto se han recibido 100 avisos y se han realizado 58 salidas. La previsión es que estos números se incrementen con la llegada del otoño. |
| Festetan zatiki organikoa jasotzea: Amara eta Egiako jaietako txoznetan eta Easoko garagardo ferian materia organikoa biltzeko froga pilotua burutu da. Emaitza positiboa izan da. | Recogida de fracción orgánica en las fiestas: se ha realizado una prueba piloto de recogida de materia orgánica dentro de las txoznas en las fiestas de Amara, Egia y la feria de la cerveza de Easo. El resultado ha sido positivo. |
| *Buddleja davidii* landare inbaditzailea Añorgako errekastoko saneamendu eta uholdeen aurreko babes | Planta invasora *Buddleja davidii* en los trabajos de saneamiento y protección ante las inundaciones en la |

| | |
|---|---|
| lanetan. URArekin harremanetan daude: udaletxeko teknikariek URAk kontratatutako enpresako langileei laguntza emango diete landare horren aleak identifikatu eta erretiratzeko. Euskotrenen erantzunaren zai daude. | regata de Añorga: se está en contacto con URA: personal técnico del ayuntamiento acompañará al personal de la empresa contratada por URA para identificar y proceder a la retirada de ejemplares. Se está a la espera de respuesta por parte de Euskotren.<br>El representante de Haritzalde informa que en una ladera cercana a la rotonda de Decathlon han identificado plantas invasoras. Enviará la localización exacta al Departamento de Medio Ambiente. |
| **3. Monpaseko pasealekua**<br>Axier Jakak informatzen du udal gobernuak Monpaseko pasabidearen proiektuari uko egiten diola eta erabaki hori Kostako Zuzendaritzari jakinaraziko diola. Udal departamentuek idatzi dituzten hiru txostenen ondorioak aipatzen ditu.<br>Iñaki Irurtiak azaltzen du Ingurumen Saileko txostenak ondorioztatzen duela pasabideak Natura 2000 inguru batean habitat eta espezieetan eragina izango lukeela eta proiektuak inpaktu eraginaren azterlanak ezartzen dituen oharpen guztiak ez dituela baitaratzen.<br>Denis Itxasok gai zerrendan gai hau sartu izana kritikatzen du udaletxeak bere proiektuarekiko errefusaren berria goiz horretan bertan eman baitu. Bidezidorraren egokitzapenak, adibidez, ingurumen eragin txikiagoa izango ote duen galdetzen dio bere buruari.<br>Gaia honen aurreko IAK baten gai zerrendan sartu ote den eztabaidatzen da eta Denis Itxasok aipatzen du gaia IAKera 2008an eraman zela.<br>Itsas Enara Ornitologia Elkarteko ordezkariaren iritziz, proiektuak ingurumen aldetik dituen akatsez gain irregulartasun administratiboak zituen, zeren eta organismo berbera baitzen proiektuaren sustatzailea zena eta bere ingurumen bideragarritasunaren inguruan erabakitzen zuena.<br>Haritzaldeko ordezkariak pasarelari buruzko hainbat txosten erakusten ditu proiektuaren nondik norakoa azaltzeko (Basa bizitzari buruzko Zuzendaritza ordearen txostena, Obra eta Proiektuen Sailaren txostena, Hirigintza Saileko txostena, Odon Elorzak Ingurumen Ebaluazioko zuzendari orde orokorrari eginiko eskutitza).<br>Eguzkiko ordezkariak uste du proiektua PSEren bandera bihurtu zela eta gainontzeko alderdiek, eta baita IAKeko partaideek ere, aurkako jarrera hartu zutela. Uste du Sagüesek duintzea behar duela.<br>Aranzadiko ordezkariak jakinarazten du San Telmo Museoko Nieto y Sobejanoren eraikineko landare horman *Armeria Euscadiensis* eta *Armeria Maritima* espezieak identifikatu dituztela, eta kontutan izanik *Armeria Euscadiensis* babestutako landarea dela, beren landaketaren nondik norakoak eta dagozkion baimenak eskatu ote ziren ezagutzea eskatzen du. Gainera, bi landareok era horretara landatuz hibridazio arriskua egon daitekeela adierazten du.<br>Axier Jakak jakinarazten du udaletxeak Ingurumen Ministeritzarekin eta Kostako Zuzendaritzarekin lehentasunezko gaien inguruan hala nola, Urumeako egokitzapenaren gaiaren inguruan, elkar lanean aritzeko ateak zabalik dituela. | **3. Pasarela de Monpás**<br>Axier Jaka informa que el Gobierno Municipal rechaza el proyecto de la pasarela de Monpás y que se comunicará dicha decisión a la Dirección de Costas. Cita las conclusiones de los tres informes elaborados por los departamentos municipales.<br>Iñaki Irurtia explica que el informe del departamento de Medio Ambiente concluye que la pasarela tendría afección a hábitats y especies en un entorno Natura 2000 y que el proyecto no interioriza todas las indicaciones establecidas en el Estudio de Impacto Ambiental.<br>Denis Itxaso critica la inclusión del tema en el orden del día cuando la misma mañana el ayuntamiento comunica su decisión de rechazo al proyecto. Se pregunta si otros proyectos, como por ejemplo el acondicionamiento del sendero, tendrán menor impacto ambiental.<br>Se discute si el tema se ha incluido en un CAMA previo al actual y Denis Itxaso comenta que el tema se llevó a CAMA en 2008.<br>El representante de Itsas Enara Ornitologia Elkartea opina que el proyecto, además de errores medio ambientales, presentaba irregularidades administrativas, dado que el mismo organismo era promotor del proyecto y decidía sobre su viabilidad ambiental.<br>El representante de Haritzalde muestra una serie de documentos relativos a la pasarela para ilustrar el curso del proyecto (informe de la Subdirección General de Vida Silvestre, informe del Departamento de Obras y Proyectos, informe del Departamento de Urbanismo, carta de Odón Elorza al subdirector General de Evaluación Ambiental).<br>El representante de Eguzki considera que el proyecto se convirtió en una bandera del PSE mientras que los demás partidos, así como los integrantes del CAMA que se posicionaban, estaban en contra. Cree que Sagües precisa de una dignificación.<br>El representante de Aranzadi informa que en el muro vegetal del edificio de Nieto y Sobejano del Museo San Telmo han identificado *Armeria Euscadiensis y Armeria Maritima*, y habida cuenta de que la Armeria Euscadiensis es una planta protegida, solicita conocer las circunstancias de su plantación y si se dispuso de las autorizaciones correspondientes. Además, apunta que plantando las dos especies de esta forma puede haber peligro de hibridación.<br>Axier Jaka informa que el ayuntamiento tiene la puerta abierta a colaborar con el Ministerio de Medio Ambiente y la Dirección de Costas para trabajar en temas |

| | |
|---|---|
| **4. Partaidetza inguruko ebaluaketa eta Tokiko Agenda 21en ebaluaketaren inguruko ekarpenak** | prioritarios, tales como el acondicionamiento de la vega del Urumea. |
| Axier Jakak hiriko Aholku Kontseilu desberdinen balorazio teknikoa dutela jakinarazten du eta urriaren amaieran politikari, teknikari eta elkarteen arteko iritzien bateratze gune bat zabalduko dela emaitzak eztabaidatzeko. | **4. Resultados de la evaluación de la participación en el CAMA y recogida de aportaciones sobre la evaluación de la implementación de la Agenda 21 en el 2011**<br>Axier Jaka informa que se dispone de la valoración técnica de los diversos Consejos Asesores de la ciudad y que a finales de octubre se abrirá un espacio de puesta en común entre políticos, técnicos y asociaciones para debatir los resultados. |
| Ana Juaristik IAKeko partaidetzari buruzko ebaluazioaren emaitzak azaltzen ditu eta galdetegietan islatu diren hobetu beharreko arlo batzuk nabarmentzen ditu: benetan aholku emaile den funtzioa garatzea, esanguratsuak diren ingurumen gai guztiak, beste departamentu batzuk inplikatzen dituzten arren, tratatzea eta ingurumenari eragiten dioten gaien tratamendua. | Ana Juaristi expone los resultados de la evaluación de la participación en el CAMA, destacando algunos de los aspectos a mejorar que se han reflejado en los cuestionarios: desarrollo de una función realmente asesora, tratamiento de todos los temas ambientales significativos, aunque impliquen a otros departamentos y tratamiento de temas que tengan implicaciones para el medio ambiente. |
| Jarraian, iritzi elkartrukea egiten da: | Se sucede un intercambio de opiniones: |
| Emauseko ordezkariak irizten du jasangarritasun integralaren ikuspuntutik gizarte, ingurumen eta ekonomiarekin zerikusia duten gai gehiago tratatu beharko liratekeela. Gainera, aholku emailearen funtzioa betetzeko eta publikoarengana iristeko mekanismoren bat artikulatu beharko litzatekeela uste du. | La representante de Emaús opina que desde el punto de vista de la sostenibilidad integral deberían tratarse más temas sociales-ambientales-económicos en el CAMA. Cree además que debe articularse algún mecanismo para cumplir una función asesora y trascender al público. |
| Haritzaldeko ordezkariak irizten du elkarte sorta handia dagoela IAKean baina hainbat arlotan asko hobetu beharra dagoela. | El representante de Haritzalde opina que hay un buen abanico de asociaciones pero que hay mucho que mejorar en otros aspectos. |
| Eguzkiko ordezkariak gaiak eta proiektuak itxi aurretik ekarri behar direla uste du. Era horretan, IAKaren iritzia entzun ahal izango da. Aranzadiko ordezkariak iritzi hau berresten du. | El representante de Eguzki cree que se deben traer los temas y proyectos antes de cerrarlos, de forma que se escuche la opinión del CAMA. El representante de Aranzadi ratifica esa opinión. |
| Itsas Enara Ornitologia Elkarteko ordezkariak uste du hirirako ingurumen inplikazio handiena duten gaiak ez direla kontseilu honetan eztabaidatzen. UPV/EHUko Ekonomia Aplikatuko Departamentuko ordezkariak aburu hau berresten du eta planeamendu eta mugikortasunaren gisako gaiak iradokitzen ditu. | El representante de Itsas Enara Ornitologia Elkartea cree que los temas de mayor implicación ambiental par la ciudad no se tratan en este consejo. La representante de la UPV/EHU Departamento de Economía Aplicada corrobora la impresión, apuntando a temas como planeamiento o movilidad. |
| Axier Jakak gogorarazten du inausketen eta zuhaitz mozketen ordenantza zirriborro fasean ekarriko dela IAKera eta baita Uliako Plan Berezia ere ekarriko dela. | Axier Jaka recuerda que se traerá la ordenanza de podas y talas en fase de borrador e informa que también se traerá al CAMA el Plan Especial de Ulia. |
| Ana Juaristik gonbitea luzatzen du elkarteren batek EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko LAParen aurreko alegaziorik edukiz gero, departamendura bidal dezala, egoki iritziz gero, udaletxeko alegazioetan sartu ahal izateko. | Ana Juaristi invita a que si alguna asociación tiene alegaciones al PTS de Ordenación de Márgenes de Ríos y Arroyos, la haga llegar al departamento para proceder a su inclusión en las alegaciones del ayuntamiento si procede. |
| Tokiko Agenda 21en ezarpenaren ebaluazioari dagokionean, Ana Juaristik jakinarazten du ezarpeneko laugarren urtean %57ra iritsi dela, eta azken urtean erritmoa mantsotu egin dela. Bere iritziz 2013 urtea bitarte indarrean dagoen Planaren berrikuspenari begira gizarte eta ekonomi gaiak sartzea garrantzizko arloa izango dela. | Respecto a la evaluación de la implementación de la Agenda 21, Ana Juaristi informa que se ha alcanzado el 57% en el cuarto año de implantación, habiéndose ralentizado el ritmo en este último año. Considera que de cara a la revisión del Plan, con vigencia hasta el 2013, una cuestión importante será la inclusión de temas sociales y/o económicos. |
| Tokiko Agenda 21en ezarpenaren ebaluazioaren gaian ez da etorritakoen ekarpenik jaso. | No se reciben aportaciones de los asistentes en torno a la evaluación de la implementación de la Agenda 21. |

| | |
|---|---|
| **5. Ingurumen sailaren diru-laguntzak** | **5. Subvenciones del Área de Medio Ambiente** |
| 2011ko diru laguntzei dagokienez, kasu gehienetan %30aren ordainketa kudeatzen ari direla eta elkarte batek itzuli egin duela proiektu baterako eskatu zuen dirua. | Respecto a las subvenciones de 2011, informa que se está gestionando el pago del 30% en la mayoría de los casos y que una asociación ha devuelto el dinero concedido para un proyecto. |
| 2012ko diru laguntzei dagokienez, elkarteen kudeaketarako eskaera gehiago jaso direla, 3 proiektu baztertu direla eta 9 elkarteren 12 proiektu onartu direla. | Respecto a las subvenciones de 2012, informa que se han recibido más solicitudes para la gestión de las asociaciones, se han descartado 3 proyectos y se han aprobado 12 proyectos de 9 asociaciones. |
| 2013ko diru laguntzen etorkizuneko oinarriei dagokienez, hainbat arlo aipatzen dizkie partaideei haien iritzia jasotzeko asmoz. Jarraian, iritzien elkartrukea egiten da: | Respecto a las próximas bases para las subvenciones de 2013, lanza una serie de cuestiones a los integrantes de cara a recoger sus pareceres. Se sucede un intercambio de opiniones: |
| Emauseko ordezkariak galdetzen du diru laguntzen eskaera egiteko aplikazio informatiko bat garatzea pentsatzen ari ote diren. | La representante de Emaús pregunta si se plantea desarrollar una aplicación informática para solicitar las subvenciones. |
| Eguzkiko ordezkariak galdetzen du prozedura sinpletzerik ba ote dagoen. 1.000€-tik beherakoak diren proiektuen %100a diruz laguntzea defendatzen du. Haritzaldeko ordezkariak iritzi hau berresten du. | El representante de Eguzki pregunta si no se podría simplificar el procedimiento. Defiende la subvención al 100% de los proyectos de cuantía inferior a 1.000 €. El representante de Haritzalde suscribe la opinión. |
| Eskolako Agenda 21eko ordezkariak uste du proiektuen emaitzak jaso beharko liratekeela. | El representante de Eskolako Agenda 21 echa en falta que no se recojan los resultados de los proyectos. |
| Emauseko ordezkariak proposatzen du modu positiboan balora daitezela elkarte desberdinen arteko elkar lanean burutzen diren jarduerak, Munduko Ingurumen Egunean jardunaldi baten antolaketaren jarduera adibidez. | La representante de Emaús propone que se valoren de forma positiva actuaciones que se realicen en colaboración entre varias asociaciones, como por ejemplo, la organización de un evento para el día Mundial del Medio Ambiente. |
| Haritzaldeko ordezkariak ebazpena ekainean izan dadila eskatzen du. | El representante de Haritzalde solicita que la resolución sea en junio. |
| Ana Juaristk jakinarazten du diru laguntzetarako online aplikazio bat garatzen ari direla. Horrez gain, epeak aurreratzen ahaleginduko direla baita ere. | Ana Juaristi informa que se está desarrollando en una aplicación online para las subvenciones. Asimismo se va a intentar adelantar los tiempos. |
| Axier Jakak inprimaki kopurua murriztearen eta hauek ulergarriagoak egitearen alde lanean ari direla informatzen du. | Axier Jaka informa que se está trabajando para reducir el número de impresos y para hacerlos más comprensibles. |
| **6. Norberak lekarkeena** | **6. Ruegos y preguntas**<br>***Cuestiones relevantes y solicitudes*** |
| Planeamenduko azken Aholku Kontseiluan eztabaidatutakoa IAKaren hurrengo saioan tratatuko da. | Lo tratado en la última reunión del Consejo Asesor de Planeamiento se tratará en la próxima sesión del CAMA. |
| Aranzadiko ordezkariak uste du Mendizorrotz mendia babesten saiatu beharko litzatekeela, Orio eta Usurbileko udaletxeekin elkar lanean. | El representante de Aranzadi considera que se debería intentar proteger el macizo de Mendizorrotz en colaboración con los ayuntamientos de Orio y Usurbil. |
| Eguzkiko ordezkariak, hondartzetan zikinkeria gehiago egotearen inguruan Aitziber San Romanek eginiko, eta egunkarietan agertutako, adierazpenen harira, nagusiki klima baldintzak kontutan izanda horrela izan ez dela irizten du. Bere aburuz Nora Galparsorok EAJko udal taldeari udako kanpainan hondartzetan jaso diren hondakinen datuak helarazi beharko lizkieke. | El representante de Eguzki, ante las declaraciones de Aitiziber San Roman aparecidas en los periódicos sobre una mayor suciedad en las playas este verano, opina que no ha sido así debido, principalmente, a las condiciones climatológicas. Considera que Nora Galparsoro debería hacer llegar al grupo municipal del PNV los datos de recogida de residuos en las playas en la campaña de verano. |
| Eguzkiko ordezkariak udaletxeak ur kontsumoaren arabera zabor tasa aldakorra ezartzea aztertzen ari den aukerari buruzko informazio zehatza ezagutzea eskatzen du. | El representante de Eguzki solicita conocer la información detallada sobre la posibilidad de que el ayuntamiento establezca una tasa de basuras variable en función del consumo del agua. |
| Eguzkiko ordezkariak duela aste batzuk haren gain ohartarazpena egin zen Asiako liztorraren habiak bertan | El representante de Eguzki informa que sigue estando en Ametzagaña el nido de avispa asiática sobre el cual se |

| | |
|---|---|
| jarraitzen duela jakinarazten du.<br><br>Axier Jakak ohartarazpena jaso egin zela eta esku hartzeen zerrendan dagoela informatzen du baina jarduerak ingurumen osasunaren arabera lehenesten direla argitzen du.<br><br>Abuztuan Ulian gertaturiko sutearen inguruan, Eguzkiko ordezkariak Donostiako udalerriko lurretan eraginik izan ote zuen jakitea eskatzen du eta, horrela izanik, titulartasun publiko edo pribatukoak ote diren ere jakitea. Udaltzainak sute honen inguruan telefono dei bat jaso ote duen jakinaraz dadila eskatzen du baita ere.<br><br>Axier Jakak erasandako lurrak Pasaiakoak direla informatzen du baina egitate hori baieztatuko duela esaten du.<br><br>Bilera amaitzen da | avisó hace unas semanas.<br><br>Axier Jaka informa que se recogió el aviso y que está en la lista de intervenciones, pero que las actuaciones se priorizan en función de criterios de salud ambiental.<br><br>El representante de Eguzki solicita, en relación al incendio de Ulia en agosto, conocer si resultaron afectadas tierras del término municipal de Donostia y en caso de ser así, si son de titularidad pública y privada. Solicita que se informe si la guardia municipal ha recibido una llamada telefónica en relación a este incendio.<br><br>Axier Jaka informa que las tierras afectadas pertenecen a Pasajes pero que se confirmará.<br><br>Finaliza la reunión. |